

# Teman ala elkarrizketan?

Ofizioka ari garela, edozein gaitan, kantukideok **bi aukera** ditugu: bata da **teman** aritzea, **eztabaidan**. Bertsolari bakoitzak muturreko jarrera bat hartzen du (alde ala kontra; gorri ala urdin) eta bere arrazoiak edo argudioak ematen ditu. Hala, publikoak txanponaren bi aldeak ikusten ditu: egoeraren argi-ilunak, bere konplexutasunean eta bere kontraesanekin.

Beste aukera da bertsolariak **elkarrizketan** aritzea, **kooperatzen**. Nahiz eta rol ezberdinak izan, bestearna ulertuz, besteari gertatzen zaionarekiko jakin-minez, eta elkarren kontra ari beharrean elkarren alde eginez.

Bide bat edo bestea hautatu, elkarrizketa oso ezberdina izango da.

Egin dezagun aproba!

Ofizioka aritzeko, hauxe dugu gaia:

**Zuek biok ikaskideak zarete. Irakaslearen mahai ondotik pasatu zaretenean, biharko azterketako orria bertan dagoela ohartu zarete.**

Hauta dezagun nola ariko garen:  
teman (eztabaidan) ala elkarrizketan (kooperatzen)?

Gure bideari dagozkien bertsoak osatuko ditugu, puntu erdika, 8ko txikian.

# Teman

A1

.....

dugun **harremana**

.....

nator **zuregana**

.....

gure talde **lana**

.....

biok erdi **bana**.

B1

.....

jarri zara **bero**

.....

zaude **erdi ero**

.....

harrapatuz **gero**

.....

baietz izan **zero**.

A2

.....

asko **egiteko**

.....

hartuta **hobeto**

.....

puntu **bakoitzeko**

.....

hamarra **lortzeko**.

B2

.....

adi-adi **dago**

.....

izerditan **nago**

.....

zer duzu **nahiago?**

.....

ikasi **gehiago**.

# Elkarriketan

A1

.....

dago mahai **gainean**

.....

joan da **bat-batean**

.....

gorde **mahaiean**

.....

gaur **arratsaldean.**

B1

.....

gauzarik **zailena**

.....

gorde dugu **dena**

.....

erantzun **zuzena**

.....

notarik **onena.**

A2

.....

biharko **papera**

.....

sartuko **ote da?**

.....

daukagu **aukera**

.....

zurekin **batera.**

B2

.....

jarri naiz **urduri**

.....

garela **dirudi**

.....

baietz irten **guri**

.....

azterketa **zuri.**